



“Txikitatik gustatu izan zaizkit eraikuntzak, nahiz eta arkitekturari buruz ideiarik ez izan” Gorka Olmo



Irudiaren egilea – Javier Jubera – www.javierjubera.com

=====

Gorka Olmo irudigile bizkaitar gaztea dugu (La Arboleda / Zugaztieta, 1986). Madrilen ilustrazio-ikasketak eginda, bertan abiatu zuen ilustratzaile-bidea, gaur egun bere jaioterrira itzuli bada ere. Forbes edo El Paiseko Icon aldizkarirako irudiak egiten ditu, eta poesia-liburuei ere irudiak jarritakoa dugu, "Gin tonic baby" liburuari, adibidez. Madrileko zenbait tabernatan hasi zen bere lana erakusten, eta, ondoren, Getxoarte, Tipos Infames edo Madrileko El Mataderon ikusi ahal izan dugu, besteak beste. Haren azken erakusketa, "Babes-lekua, Aterpea eta Sua", uda partean Bilbon izan genuen ikusgai, eta orain Madrileko Espacio Labruce-n topa dezakegu.

Artista, ilustratzailea, marrazkigilea...? Nola ulertzen du Gorka Olmok bere burua?

Batzuetan ilustratzailea eta beste batzuetan marrazkigilea... Normalean gehien egiten dudana niretzako marraztea da, nahiz eta aldizkarietarako testuak ilustratu. Eta, tira, artista izatearena nahiko subjektiboa da, hori besteek esan beharko lukete! (kar kar kar).

Zure lanetan, mundu imaginarioetan murgiltzen gaituzu sarritan. Zure mundutik gertu dauden munduak dira?

Bai noski, normalean inguratzan nauenari buruz marrazten dut, buelta bat ematen badiot ere, justu nahi dudana bihurtzeko. Adibidez, nire azken erakusketan aterpeari buruz hitz egiten dut. Betidanik nahiko etxezalea izan naiz, eta hori azkenean marrazteko orduan ere nabaritzen dela uste dut.


Marrazkiak egitea umeen egunerokotasunaren parte garrantzitsua da adin batera arte. Baina momenturen batean (eta hezkuntza-sistemak erantzukizun zuzena du horretan) umeei (gehienei) "galdu" egiten dute marrazkia adierazpen bide moduan. Zure kasuan, momenturen batean berreskuratutakoa da, edo sekula ez zenion utzi marrazteari?

Nik betidanik marraztu izan dut. Normalean, jendeak adin jakin batean marrazteari uzten dio. Urteak pasa ondoren marrazkiren bat egiteko eskatzen zaienean, ume txikien moduan egiten dute, eta lotsa handia ematen die. Nire kasuan ez nionez inoiz marrazteari utzi, ez zitzaidan hori gertatu, baina egia esan ez nuen marrazketa serio hartu duela 6 edo 7 urtera arte. Behin bisita-txartelak eginda, ez dago ihes egiteko modurik! (kar kar kar)

Gorka ume handi bat da edo heldutasunetik aldarrikatzen duzu marrazkigintza edo ilustrazioa?

Heldutasunetik aldarrikatzen dut, noski, nire marrazkiek itxura gozoa dutela aitortzen dudana arren. Baina horri esker apur bat gogorak diren gaiak landu ditzaket (sexua edo heriotza, alegia), ikusleentzat bihurtzeko izango ez direla ziurtatuz. Horrez gain, horrek irudiari bigarren zentzu bat ematen dio, eta ikusleak harritu eta haien arreta eskuratzen dut.

"Babes-lekua, Aterpea eta Sua" da Bilbon ikusgai izan dugun eta orain Madrilen ikusgai dagoen zure azkeneko lanen erakusketaren izenburua. Arkitekturarekin lotura zuzena duten hitzak. Lotura hori, arkitekturarekiko erreferentzia hori, zure lanetan behin eta berriz topatzen dugu. Kontzientea da arkitektura, eraikuntza edo espazioarekiko lotura hori? Bilatutakoa da? Edo berez suertatzen da?



Irudien egilea ~ Gorka Olmo. Ezkerretik eskubira "Tu casa hace aguas", "Cama de campaña" eta "Fotosíntesis carnal" ~ www.gorkaolmo.com

Txikitatik gustatu izan zaizkit eraikuntzak, nahiz eta arkitekturari buruz ideiarik ez izan. Sarritan erabiltzen dudana errekurtso bat da, baina egia esan ez da bilatua, berez irteten zait. Beharbada kontatu nahi dudana ezin hobeto laguntzen duelako izango da. Esate baterako, azken erakusketan behin eta berriz agertzen dira egiturak, marrazki bakoitzean kontatu nahi dudana istorioa hobeto azaltzen laguntzen didatelako.

Zer lan mota egiten topatzen duzu zeure burua erosoan? Zein gai jorratzen duzu gustukoan?

Gustukoan dudana diskoen azala diseinatzea da. Musika izugarri gustatzen zait eta nik egindako formatu batean gauzatuta ikustea guztiz aberasgarria da.

Denetarikoa gaiak jorratzen ditut, baina esan dezakegu surrealismoa azaltzen dela egiten ditudan ia gauza guztietan. Logikaren morroi ez izatea zerbait kontatzeko modurik onena da, egunerokotasunetik ihes egiteko irteera baten modukoa, alegia.

Musikazale amorratua izanik, seguru musika entzuten duzula irudiren batean lanean zabiltzanean. Zer musika mota entzuten duzu lanean zaudenean? Marrazkiaren araberakoa al da?

Beti ari naiz musika entzuten; marraztean, autobusean,, kaletik noala... Gehien gustatzen zaidanetako gauza bat da. Gustatuko litzaidake marrazten dudanean entzuten dudana musikak marrazten ari naizenarekin zerikusia duela esan ahal izatea, baina ez da hala. Normalean, musika lasaia entzuten dut, nahiz eta batzuetan zoratu eta musika "zaratsua"

gustukoa izan. Mota guztietako musika gustatzen zait, Antonio Machinetik Trusterara.

Madriren urte batzuk eman ondoren, etxera itzuli zara, jaioterrira. 3 milioi pasako hiria utzi, eta 500 bat biztanle dituen zure herrira, Zugaztieta, bueltatu zara. Nola eragin dio zure lanari edo zure lan egiteko moduari aldaketa horrek?

Nire lan egiteko modua ez da gehiegi aldatu. Madriren logelan neukan lan-mahaia; Zugaztieta, aldiz, etxean daukadan estudio txiki batean. Nabarmen aldatu dena ingurugiroa da. Madril oso hiri bizia da; Zugaztieta, berriz, ezagutzen dudana lekurik aspergarrietariko.

Hori, lan egiteko orduan nabaritzen da egiten duzuna egiteko erabil dezakezun denbora kopuruan: Madriren milaka plan zeuden egiteko; Zugaztieta aldiz, egiteko daukadan ia gauza bakarra da! (kar kar)

Nola ulertu duzu "autoeraikuntza" zenbaki honen azalerako irudia sortzeko orduan?

Hasierako ideia "zuhaitzeko" etxe bat egitea zen. Zuhaitzik gabe baina. Kontzeptu hori DIYren adibide ona dela iruditu zitzaidan, apur bat haratago eramanda gainera. Izan ere, kasu honetan, zuhaitzik ez izanda ere (ezinbestekoa den zerbait), hain burugogorra naizenez, bai ala bai egiten amaituko dut. Aldamio baten gainean bada ere.

Haren lanak WWW.GORKAOLMO.COM web gunean daude ikusgai.

===